

# IPUIYAK

## KATUBAK

Arratoia goiz batez  
zulotik atera  
eta joan zan sukalde  
gañera jatera;  
naizuben gauzetikan  
izanik aukera  
lukainka mutur batez  
jabetu zan bera.

Puskak kendutzen zizkan  
pozez lukainkari;  
bañan gustorenian  
jaten zala ari  
katu bat zan azaldu  
t'ikusirik ori  
presaka salto egiñ,  
baiziyon berari.

Kolpe *¡rau!* bota ziyon  
azkar garrondora,  
bañan itzuli zuben  
nolabait kanpora;  
naiz atzaparrak erre  
laratzian gora,  
karrasika igozan  
chimini zulora.

. . . . .  
Berrak gauza asko  
eragiñ lezake,  
bizi bakarra denak  
degulako maite;  
estuusun larriyan  
gizon askok ere,  
burni gorituari  
elduko liyoke.

\*  
\* \*

## ZAKURRAK

Zakurcho bat pardela  
abuanarrurik  
gosariyakin irten  
zan goiz baserriitik;  
otordua zeraman

nagusiyarentzat,  
mendiyan egurretan  
ari ziranentzat;  
ain leyal ta pizkorra  
zan chakur chikiya,

zintzo egiten zuben  
 aginte guziya;  
 bada bidean oso  
 pozez zijoala  
 ikusi zuben norbait  
 alderatzen zala.  
 Au zan zakur aundi bat  
 oso itsusiya,  
 bildurturik zeukana  
 inguru guziya;  
 ortzak erakutsigaz  
 alderaturikan  
 diyo:—Ez aiz emendik  
 joango bizirikan  
 ez badek azkar uzten  
 neretzat pardela;  
 gañerakuan jakin  
 zak jango autela.—  
 ¡Chiki gizarajoa  
 bildurrez josiya!  
 berari laja ziyon  
 zeraman guziya;  
 umill umill makurka  
 isatsa gordeta,  
 aldendu zan bertatik  
 bildurrez beteta;

bañan bide aldi bat  
 pasazubengan,  
 eta lasaitasunaz  
 jabetu zanian  
 asi zan zaungaz deitzen  
 inguru denari  
 etorri ta lagundu  
 zezayoten arri;  
 ala, bildurik zakur  
 inguruko denak  
 eta jakiñik oni  
 gertatako penak  
 elkartuta indarrez  
 joan ziran argana  
 ta arkiturik zuten  
 chirchillatu dena.

. . . . .  
 . . . . .

Zakur orren moduko  
 gizonak badira,  
 irtetzen diradenak  
 noiz nai bide erdira;  
 bañan justizi lege  
 ederren azpira  
 azkenerako denak  
 eroritzen dira.

JOSÉ ARTOLA.

